



UPELAK. Koldo Martinez, Trebiñu sagardotegiko arduraduna, upel baten eta sagardo botila baten aurrean. 012224

IKUSMIN HANDIA

Askartzako Trebiñu sagardotegian atzo zabaldu zuten txotx egiteko garaia. Koldo Martinez arduradunak azpimarratu du aurretik sagardotegi horretako bezeroen artean ikusmin handia zegoela aurtengo sagardo berria dastatzeko.

Arabako Bertsozale Elkarteko kideak izan ziren Askartzako Trebiñu sagardotegiko txotx garaia hasteko ekitaldian. Giro ederrean, gustura dastatu dute sagardo berria.

Koldo Martinez arduradunak esan du aurretik ikusmin handia zegoela ohiko bezeroen artean: «Jendeak izena eman du aste batzuk lehenago jadanik, tokia erre-serbatzeko». Izan ere, Trebiñu sagardotegia

ez da handia: 50 bat lagunentzako tokia dauka.

«Sagardotegia txikia da, eta orduan jendeak badaezpada izena aurretik eman du, lekuri gabe gera ez dadin. Sagardo berria dastatzeko sekulako ikusmina dago.

Batzuek, egun batean etortzeko baino gehiago, hiru egunetan edo hainbat egunetan etortzeko izena eman dute».

Askartza inguruko jendea joaten da Trebiñu sagardotegira: Trebiñukoa, Gasteizkoa eta Arabako beste hainbat herritakoa. «Deba garaiko jendea ere etortzen zaigu, eta Mirandako jende bat ere bai», Martinezen hitzetan.

Giro ederra

Sagardotegian giro ona izaten dute. «Oso giro polita egoten da. Sagardoa dastatu eta afaldu ez ezik, jendeak abestu ere egiten du. Guk hainbat abesti ezagunen hitzak uzten dizkiegu, eta giro ederrean kantari aritzen dira».

Aurtengo sagardoa eta lazkoa ez direla berdinak nabarmendu du Martinezek: «Ez da lazko sagardoa bezalakoa. Urte bakoitzean sagardo bat ateratzen da. Izan ere, sagarra eguraldiak eta lurra eman duten produktua da, eta hori nabaritzen da. 2013. urtea oso urte berezia izan da, eguraldi aldetik, eta sagardoa ere berezia aterada».

Dena dela, sagardo berria «oso ona» dela azpimarratu du Martinezek. «Edateko oso polita dago. Oso gustu ona dauka. Gustura edaten da».

Askartza herrian, Trebiñutik 5 kilometrora dago Trebiñu sagardotegia, Gasteiz eta Trebiñu artean.

TREBIÑU SAGARDOTEGIA




Tel.: 945-24 48 52
657-73 65 99



ASKARTZA
TREBIÑU

ARABAKO
SAGARDO
EKOIZLEAK

Iturrieta
sagardotegia



Arraga auzoa / ARAMAIO
945-44 53 85 / 685-72 15 92
iturriasagardotegia.bolgsport.com